# 3.1 GAIAREN AURKEZPENA

## > Zelako herri arraroa!

### - Joxeren gutuna






Kaixo, kaixo!

Lagunak, arazo txiki bat izan dut: Europara bidean galdu egin naiz eta Afrikara etorri naiz; Cabo Verdera.

Matagalpako basotik Managuara (Nikaraguako hiribura) autoz joan nintzen eta han yate batean sartu nintzen Bartzelonara iristeko asmoarekin. Baina, gauzak zer diren, iparrorratza puskatu eta Afrikako hegoaldera iritsi nintzen. Hegazkinez iritsi naiz Cabo Verdera.

Horregatik, orain, Cabo Verdeko irlatxo txiki batean nago: O I AM-en. Hemen lagun bat daukat: Airam.

Badakizue zer!, Oiam-en gauza oso arraroak gertatzen dira beti. Bideo bat bidali dizuet ikus dezazuen...

Noski, ez zait ahaztu, euskara ikasten jarraitzeko lantxoak ere bidali dizkizuet.

Patxo handi bat!

JOXE